



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



Baztango
Udala

Deialdia, hautaprobeen bidez Baztango Udalaren jabetzakoa den Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta garbitzaileen lanpostua betetzeko izangaien zerrenda eratzeko, Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean sortzen diren beharrak estaltzeko.

OINARRIAK

1.–Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Baztango Udalaren jabetzakoa den Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean 2 garbitzaile lanpostu betetzea eta garbitzaileen lan-poltsa bat eratzea, hautaprobeen bidez, Baztango Udalaren jabetzako Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean sortzen diren beharriari aurre egiteko.

Hautaketa horretan puntuazio altuena lortzen duten 2 hautagaiek Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean 2 garbitzaile lanpostu beteko dituzte, bat asteko 32,5 orduko lanaldiarekin eta bertzea asteko 27,5 orduko lanaldiarekin. eta gainerako gaindituen zerrendarekin lan poltsa bat osatuko da, zeina ondorengo kontratazio eta ordezkapenarako erabiliko den, eta indarrean egonen den bertze deialdi bat onartu arte.

1.2. Lan-baldintzak Lixura Baztan SLri aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan, Langileen Estatutuan, Hobekuntza Itunean hura indarrean sartzean Lixura Baztan SLren ordezkariak eta Enpresa Batzordeak sinatuta eta tokiko sektore publikoko erakundeei aplikatu beharreko araudian zedatutakoaren eta araututakoaren arabera arautuko dira.

Soldata eskatutako eginkizunen eta baldintzen arabera izanen da, enpresan ezarritako baremoaren arabera.

2 hilabeteko probaldia.

2.–Betebeharrak.

2.1. Parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatuak herritarren ezkontideek ere hartzen ahal dute parte, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuak herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beharagoak badira, edo gorakoak baldin haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.



ZIGILUA

Iragarri-ohol elektronikoko argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



Baztango
Udala

c) Eskola-ziurtagiriaren titulua, DBHko graduatu-tituluarena, Eskola Graduatuaren tituluarena, Oinarrizko Lanbide Heziketarena, Lehen Mailako Lanbide Heziketarena edo baliokideak izatea, edo horiek lortzeko eskubideak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean ordaindu izanaren frogagiria izatea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

f) Nafarroako bi hizkuntza ofizialen ezagutza (gaztelania eta euskara). Azken kasu honetan, ahozko gaitasunari dagokionean B2 titulua edo baliokidearen bidez kreditatuta. Titulurik eduki ezean izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko (salbuetsiak egonen dira Lixura Baztan S.L.k . aitzinetik egindako kontratazio prozeduraren batean hizkuntza gaitasuna frogatu dutenak).

Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoen kasuan, itunaren frogagiria aurkeztu beharko da.

Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, bai eta hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean mantendu ere. Gerora horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izanen da deirik ez egiteko, harik eta arrazoi hori desagertu arte.

3.–Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Baztango Udaleko Erregistro Orokorrean (Foruen plazan) aurkeztu beharko dira, ekainaren 23a bitartean (barne).

Eskaera posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutunazal irekian egingen da, ziurtatu aitzinetik postako langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari. Eskaera Baztango Udaleko Erregistroan zuzenean aurkeztu ez bada, eraginkortasun administratiboagatik, Udalari horren berri eman beharko zaio lixura@baztan.eus helbide elektronikoaren bidez, betiere eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barnean.

3.2. Eskabideak II. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio. Horiek Udaleko bulego orokorretan eskura daitezke, baita Interneten ere, www.baztan.eus helbidean. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



Baztango
Udala

3.3. Izangaiek honako hau aurkeztu behar dute eskabidearekin batera:

–Nortasun agiri nazionalaren –edo baliokidearen– fotokopia.

– Eskola-ziurtagiriaren tituluaren kopia, DBHko graduatu-tituluarena, eskola-graduatuaren tituluarena, oinarritzko lanbide-heziketarena, lehen mailako lanbide-heziketarena edo baliokideena, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskubideak ordaindu izanaren frogagiriarena.

-Baloratuko diren merezimenduak frogatzeko agiriak. (Laneko esperientzia frogatzeko enpresaren agiria edo lan-bizitza eta kontratua aurkeztu beharko dira)

3.4. Ezgaitasun aitorturen bat duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, egoera horren frogagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Halaber, azterketak egiteko denboraren edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean behar den tokian adierazi beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean, nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

3.5. Dokumentu horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuko, eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutasuna izateagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

3.6. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.–Izangaien onarpena.

4.1. Behin-behineko zerrendak. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Baztango Udaleko iragarki taulan eta Udalaren web-orrian (www.baztan.eus). Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko dira onartuen behin betiko zerrendak eta proba hasteko lekua, eguna eta ordua zehaztu ahal izanen dira.

Izangai baztertuek, behin-behineko zerrenda argitaratu ondoko 5 egun baliiodunen barrenean, erreklamazioak egin ahalko dituzte eta, okerrik egin baldin badute, horiek zuzendu.

4.2. Behin betiko zerrendak. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du Lixura Baztan S.L. udal-sozietatearen lehendakaritzak, eta argitaratuko du www.baztan.eus Udalaren webgunean eta iragarki oholean. Ebazpen horretan berean proba hasteko lekua, eguna eta ordua zehaztu ahal izanen dira.

4.3. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski deialdian eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Izangaiek aurkeztutako dokumentazioa edo Udalak bere eskuetan daukana aztertuta, eskatutako baldintzetako bat betetzen ez dutela ohartzuz gero, interesdunek deialdian parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedelectronica.baztan.eus/> 10tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



Baztango
Udala

4.4. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren leko 39/2015 Legearen 45.b) artikuluan ezarritakoarekin bat.

5.-Oposizio-lehiaketa prozeduraren garapena

Lehiaketa - oposizioa bi fasetan egingo da: lehenik, lehiaketa, eta, ondoren, oposizioa.

Hautaketa prozeduraren gehieneko balorazioa, bere osotasunean, 100 puntukoa izanen da, honela banatuta:

1. Lehiaketa - fasea: 40 puntu, gehienez ere.
2. Oposizio - fasea: 60 puntu, gehienez ere.

Azken kalifikazioa lehiaketa-faseko eta oposizio-faseko puntuazioen batuketaren emaitza izanen da.

5.1.- Lehiaketa-fasea: gehienez ere 40 puntu.

Lehiaketa - faseak, oposizio - fasearen aurretik egingen denak, 40 puntu izanen ditu gehienez, eta ez da baztertzaila izanen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren egindako zerbitzuak edota formakuntzak ez dira baloratuko.

Merezimenduak honela puntuatu eta egiaztatuko dira:

a) Esperientzia: gehienez ere 30 puntu.

a.1) Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean garbitzaile lanpostuan aritzeagatik: 3 puntu lan egindako urte bakoitzeko (gehienez ere 10 urte hartuko dira kontuan).

a.2) Baztango Udalean, haren erakunde autonomoetan edo Udalaren enpresa publikoetan garbitzaile lanpostuan aritzeagatik: 2 puntu lan egindako urte bakoitzeko (gehienez ere 10 urte hartuko dira kontuan).

a.3) Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean hautaketaren xedea ez den bertze lanpostu batean aritzeagatik: 1,5 puntu lan egindako urte bakoitzeko (gehienez ere 10 urte hartuko dira kontuan).

a.4) Bertze enpresa batean garbitzaile lanpostuan aritzeagatik: puntu 1 lan egindako urte bakoitzeko (gehienez ere 10 urte hartuko dira kontuan).



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/05



Baztango
Udala

b) Bertze merezimendu batzuk: gehienez ere 10 puntu.

b.1) Lixura enpresa publikoak garbitzaile lan-poltsak osatzeko egindako prozesuren bat gainditu izanagatik: 5 puntu. (Prozesu bat baino gehiago gaindituz gero, bakarra kontatuko da).

b.2) Bertze titulazio akademiko batzuk:

b.2.1.) Titulazio ofizialak eta master-tituluak, maila berekoak edo goragokoak, deialdian sartzeko titulazioa baloratu gabe: 1,25 puntu titulazio ofizial bakoitzeko (2,5 puntu gehienez).

b.2.2) Deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak, 0,1 puntu, gutxienez 10 orduko prestakuntza bakoitzeko; 0,5 puntu, gutxienez 25 orduko prestakuntza bakoitzeko; puntu 1, gutxienez 40 orduko prestakuntza bakoitzeko, (2,5 puntu gehienez).

b.3) Euskara C1 maila edo parekoa: 2,5 puntu.

5.2.- Oposizio-fasea: gehienez ere 60 puntu.

Proba teoriko bat izanen da, idatziz erantzun beharko zaio test motako galdera-sorta bati, epaimahaiak hasi aitzinetik ezartzen duen gehieneko denboran. Galdera-sorta horrek hiru erantzun-aukera izanen ditu, eta horietako bat bakarrik izanen da baliozkoa. Galderak deialdi honen I. eranskinean agertzen den gai-zerrendan jasotakoari buruz izanen dira.

Proba egitean, ezinen da testurik kontsultatu, ezta kalkulatzeko makinarik edo bertzelako materialik erabili ere, boligrafoa, tinta urdina edo beltza izan ezik.

Ariketak plika sistemaren bidez eginen dira.

Probetarako dei bakarria eginen da. Parte-hartzaileek aldean eraman beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo gidabaimena. Agiriaren bidez nor diren frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak baztertuta geldituko dira.

Hautaprobea egiteko, ezgaitasun aitorturen bat dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokiak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

6.-Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Kalifikazio epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Fernando Anbustegi Goñi, Lixura Baztan S.L.ko lehendakaria eta Baztango alkatea.
- Ordezko epaimahaiburua: Eskuordetzen duen pertsona
- Idazkaria: Mariano Iribarren Irigoyen, Lixura Baztan S.L.ko idazkaria eta Baztango zinegotzia
- Ordezko idazkaria: Eskuordetzen duen pertsona



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 5 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



Baztango
Udala

- Mahaikidea: Mirentxu Erkizia, Lixura S.L.ko langileen koordinatzailea
- Ordezko epaimahaikidea: Eskuordetzen duen pertsona

6.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen direnean. Bestetik, izangaiek mahaikideak errefusatzeko lege zezarritako Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat izaten denean.

Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek beraiek uko egiteko edo haiek errefusatzeko lege zezarritako kasuak direla-eta, aldaketa horren berri emanen da izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

6.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez ere kideen gehiengo osoa bertan ez bada.

6.4. Epaimahaia gehiengoz ebatziko ditu deialdietako oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruan sortzen diren arazoak.

6.5. Epaimahaia aholkulari espezialistak hartzen ahalko ditu probarako, eta horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

7.–Emaitzak.

7.1. Parte-hartzaileen artean berdinketarik gertatuz gero, epaimahaia ebatziko du kontuan izanik zein izan den probako puntuaziorik handiena. Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, epaimahaia eginen duen berariazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Zozketaren emaitzak web orrian (deialdiaren aipuan) eta Baztango Udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.

7.2. Behin proben kalifikazioa bukatutik, epaimahaia Baztango Udalaren iragarki oholean eta webgunean (www.baztan.eus) jarriko du probak gainditzen dituzten izangaien zerrenda, guztira lortzen duten puntuazioaren ordenaren arabera.



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/05



Baztango
Udala

8.– Kontrataziorako izangaiei dei egitea.

8.1. Gainditu duten izangaiei Lixura Baztan S.L.n gertatzen diren beharren arabera eginen zaie dei, deialdi honetan ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako arauetara jarraituz.

Gainditu duten eta plazarik gabe gelditu diren pertsona guztiak enplegu-poltsa batean sartuko dira, Lixura Baztan SL udal sozietatearen barruan sor daitezkeen aldi baterako funtzio- eta antolaketa-beharrak betetzeko.

Era berean, Lixura Baztan sozietateak egiten duen deialdi hau baliagarria izan daiteke, udal-sozietateak hala nahi izanez gero, kontratu mugagabeko bokazioa duten egiturazko beharrianak betetzeko. Beharrian horiek ezin dira lanpostu mugagabeekin bete, legezko mugak direla-eta (birjartze-tasa); beraz, Lixura Baztan SLk aldi baterako kontratatu ahal izanen du, eta, horretarako, kontratua mugagabe bihurtu ahal izanen da legeriak horretarako aukera ematen duen unean.

8.2. Lanean hasteko deiarri dagokionez, kontuan hartuko da deialdi honetako III. Eranskinean biltzen den araudia.

8.3. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen eman beharko dute, baita helbide elektronikoa ere. Informazio hori etengabe eguneratua eduki behar dute.

9.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean, organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo bestela,
- b) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean barnean.
- c) Berraztertze errekurtsua, egintza eman duen erakundean berean, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Baztanen. Lixura Baztan S.L.ren Administrazio Kontseiluko lehendakaria

Fernando Anbustegi Goñi



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua
2026/06/05



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 7 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



ZIGILUA

Iragarri-ohol elektronikoa argitaratua
2026/06/05



Baztango
Udala

I. ERANSKINA

Gaitegia

1. Garbiketaren kontzeptu orokorrak eta lurzoruen fitxa teknikoak
2. Lurzoruetarako oinarrizko tratamendua
3. Garbitzeko makinak
4. Garbiketa-sistemak
5. Ikastetxe publikoak garbitzea. Administrazio-eremuak garbitzea
6. Bainugela garbitzea. Komun publikoak garbitzea
7. Garbitzeko oinarrizko erremintak eta tresnak
8. Garbiketako produktu kimikoak
9. Kanpoko biltegiak/tailerrak garbitzea
10. Alderdi ekologikoak garbiketan. Hondakinak ezabatzea
11. Garbiketa-zerbitzua antolatzea eta kontrolatzea. Lan-ekipoak. Garbiketako langileen eginkizunak
12. Garbiketaren kalitatea
13. Laneko arriskuen prebentzioa garbiketa-lanetan
14. Ortografia eta aritmetika: oinarrizko nozioak
15. Langileen Estatutua
16. Desinfekzioa eta desinfektazioa. Intsektu eta parasitoetatik datozen osasunerako arriskuak. Erauzteko moduak.
17. Baztango Ordenantza, koto eta paramentu berriak.
18. Baztango geografia

II. ERANSKINA

[II.-Eranskina. Eskabide eredu.](#)



BAZTAN

Egiatapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 8 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/05



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua
2026/06/05

III. ERANSKINA – LAN-POLTSARI DAGOKION ARAUDIA

PROBAK GAINDITU ETA LANPOSTURIK LORTU EZ DUTEN PERTSONEN ZERRENDAK.

.- Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten pertsonen osatuko dituzte zerrenda horiek.

.- Probak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrendako lehentasuna hautaketa-prozesuan guztira lortutako puntuaziorik handienaren arabera ezarriko da. Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, proban notarik altuena lortu duen izangaiaren alde ebatziko du epaimahaiak. Berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak zozketa bakarria egingen du erabakitzeko.

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO PROZESUAREN KUDEAKETA

Deia egiteko arau orokorrak.

.- Izangaiek, beren lokalizazioa errazteko, gutxienez harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat adierazi beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe harremanetarako beste telefono batzuk ere komunikatu ahal izatea, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

Lan – eskaintzak

.- Lan-poltsa osatzen duten pertsonen lan-escakintzak honela helaraziko zaizkie:

1. Kontratazioa presazkoa ez bada, mezu elektronikoa bidaliko zaie zerrendako pertsonen lan-escakintzen berri emateko. Horiek, gehienez ere 2 egun balioduneko epean erantzun beharko dute, escakintza onartzen duten ala ez jakinaraziz.
2. Lanpostuan gehienez bi eguneko epean hasi behar izanez gero, posta elektronikoa bidaliko zaie zerrendako pertsonen, eta 24 orduko epea emango zaie, posta bidaltzen den orduetik zenbatzen hasita, lan-escakintza onartzen duten ala ez jakinaraz dezaten.
3. Lanpostuan 24 ordu baino gutxiagoko epean hasi beharko balitz, izangai guztiei deituko zaie, une horretan kontratazio-zerrendan dauden hurrenkeran, harik eta proposatutako kontratua onartzeko prest dagoen izangai bat aurkitu arte.

.- Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratazio-escakintza bat egin bazaio, eta pertsona horrek ez badu erantzuten horretarako ezarritako epean, uko egin diola ulertuko da, eta izangai aldi baterako kontratazio-zerrendaren amaieran kokatuko da.

.-Kontraturen bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanposturen bat betetzeko kontrataziorik eskainiko, baldin eta ez bada sei hilabeteko edo gehiagoko lanpostu huts bat edo kontratu bat betetzeko, edo horren ondorioz lanaldia handitzeko ez bada.

.- Deialdietarako oro har xedatutakoari kalterik egin gabe, izangai batek aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu bat bete badu eta aipatutako kontratua amaitu eta hurrengo hamabost egunen barruan antzeko lanpostu bat aldi baterako betetzeko baimena ematen bada, Lixura SLk kontratua eskainiko dio izangai horri, betiere, deialdi berria egiteko unean, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Hautagaia, deialdia egiteko unean, indarrean dagoen zerrenda batean sartuta egotea.
- Kontratu amaitzeko arrazoia ez izatea uko egin izana.



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 9 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GORI
2026/06/05



ZIGILUA

Iragarri-ohol elektronikoa argitaratua
2026/06/05

Lanpostuari uko egitea

Uko egitetzat hartuko da eskaintako lanpostuari uko egitea, honako kasu hauetakoren batean dagoela egiaztatzen ez badu:

- Indarrean dagoen administrazio- edo lan-izendapen edo -kontratu baten ondorioz behartuta egotea.
- Aldi baterako ezintasun-egoeran edo amatasun- edo adopzio-lizentzian egotea.
- 3 urtetik beherako seme edo alaba bat zaindu behar izatea, bai berezkoa denean, bai adoptatua denean. Arrazoi horregatik kontraturen bati uko egiten diotenek ezingo dute berriro prest egon uko egin diotenetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta uko egitea eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senide bat bere ardurapean izatea, baldin eta, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik, bere kabuz baliatu ezin bada. Arrazoi horregatik kontraturen bati uko egiten diotenek ezingo dute berriro prest egon uko egin diotenetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta uko egitea eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- Norberaren ezkontza edo antzeko egoera, Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, baldin eta eskaintako kontratua hasi aurreko edo hurrengo hamabost egun naturalen barruan badago.
- Behar bezala aitortutako desgaitasun-izaera izatea, eta desgaitasunaren ezaugarriek bateraezin bihurtzea kontratua eskaintzen den lanpostuaren baldintza espezifikoekin.

Kasu guztietan, izangaiek agiri bidez egiaztatu beharko dute arrazoia, uko egiten dioten lanpostua eskaini eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean.

Zerrendetatik kanpo uztea.

Deialdia eragin duen zerrendatik kanpo geratuko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiaik:

- Justifikaziorik gabe, eskaintako lanpostuari bi aldiz jarraian ez erantzutea edo uko egitea.
- Dagokion kontratua ez sinatzea, izangaiari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik, deialdiaren bidez lanpostua onartu ondoren.
- Probaldia ez gainditzea. Zerbitzuaren arduradunak txosten arrazoitua eman beharko du, eta langileen ordezkariekin ados jarri beharko da.
- Sinatutako kontratuari uko egitea.
- Urtebetez, kontrataziorako deiak direla-eta, izangaiarekin harremanetan jartzeko ezintasuna, behin eta berriz, izangaiaik berak emandako helbide elektronikoetan.
- Lanpostua uztea.
- Kontratua azkentzea, amaiera onartzen duen ebazpen irmoarekin amaitzen den diziplina-espedientea izapidetzearen ondorioz.
- Kontratua gerora sortutako arrazoiengatik azkentzea, kontratatutako pertsonak lanpostua betetzeko gaitasunik edo egokitzapenik ez duelako, lanpostuari esleitutako eginkizunak eraginkortasunez betetzea eragozten duen errendimendu nahikorik ez duelako. Zerbitzuaren arduradunaren txosten arrazoitua egon beharko da, eta langileen ordezkariekin ados jarri beharko da.



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFPY P7M3 R3MF 4MWJ

Lixura SL. 2 garbitzaile lanpostu betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia - SEFYCU 334345

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 10 orrialdea